

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Foru Enpresak eta Foru Erakundeak****Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFÉ)**

Langileen kontratazioan egiten diren deien etendura eta COVID-19 koronabirus-kasuen agerpenek eragindako osasun-krisiaren ondoriozko xedapen lotuak indargabetzea.

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, 2021eko martxoaren 3an eginiko ohiko bileran (1/21 akta), besteak beste, erabaki hau onetsi zuen:

«*Lehenengoa:* Lan-poltsak kudeatzeko irizpideetan jasotako zehaztapenak eteteko Gobernu Batzorde honek 2020ko martxoaren 7an hartutako erabakiaren indarraldia indargabetzea, laguntza-zentro bakoitzeko lan-kontratueterako deiak diskriminatuz.

Bigarrena: Era berean, ondoriorik gabe geratuko dira betearazpenean antzeko mailarekin edo beheragoko mailarekin emandako edozein garapen-xedapen eta/edo xedapen osagarri.

Hirugarrena: Erabaki honek datorren martxoaren 8an izango ditu ondorioak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-oholean eta GUFÉren webgunean noiz argitaratu gora-behera».

Bilbon, 2021eko martxoaren 3an.—Gerentea, David Latxaga Ugartemendia